



NOTA DE PRENSA

CÁRITAS EUSKADI ATIENDE A MÁS DE 34.500 PERSONAS BENEFICIARIAS EN 2025 Y ALERTA DE QUE LA VIVIENDA SE CONSOLIDA COMO PRINCIPAL FACTOR DE EXCLUSIÓN

Vitoria-Gasteiz, 3 de junio de 2026

Durante 2025, Caritas Euskadi acompañó a 17.077 hogares formados por 34.569 personas en situación de pobreza y exclusión social en Araba, Bizkaia y Gipuzkoa. Además, ha destinado 4.561.979,38 euros en ayudas económicas directas para sostener necesidades básicas, vivienda, suministros y otros apoyos esenciales, y ha contado con el compromiso de 3.301 personas voluntarias que sostienen diariamente una amplia red comunitaria de acogida y acompañamiento en todo el territorio.

Personas y hogares acompañados en 2025

La acción de Caritas **Bizkaia** permitió acompañar a **9.104 hogares**, integrados por **14.616 personas**. En **Gipuzkoa**, la intervención alcanzó a **4.065 hogares**, en los que se atendió a **10.183 personas**. En **Álava**, el acompañamiento llegó a **3.908 hogares**, que suman **9.770 personas**. En conjunto, la red de **Caritas Euskadi** estuvo presente junto a **17.077 hogares**, formados por **34.569 personas**, en situación de pobreza y exclusión social

Ayudas económicas directas 2025

En Gipuzkoa, las ayudas económicas directas han ascendido a **2.278.134,00 €**. En Bizkaia, las ayudas económicas directas han alcanzado **1.719.374,55 €**. En Álava, las ayudas económicas directas han sumado **564.470,83 €**.

En total, Caritas Euskadi ha destinado **4.561.979,38 €** en ayudas económicas directas.

Una exclusión social cada vez más compleja y prolongada

Caritas Euskadi llega a la celebración del día del Corpus de 2026 con una constatación clara: la exclusión social se está haciendo más compleja, intensa y prolongada, incluso en un territorio que mantiene indicadores mejores que la media estatal. La realidad atendida a lo largo del año confirma que no basta con hablar de recuperación o de mejora macroeconómica cuando crecen las situaciones de integración precaria y cuando miles de personas continúan encontrando obstáculos para ejercer derechos básicos como la vivienda, la salud o una protección social suficiente.



Durante 2025, Cáritas Euskadi ha seguido acompañando a personas y familias atravesadas por múltiples formas de vulnerabilidad, en muchos casos marcadas por la inestabilidad residencial, la fragilidad emocional, la precariedad de ingresos y la dificultad para sostener una vida cotidiana digna. En este contexto, Cáritas subraya que la exclusión no puede leerse únicamente desde la falta de empleo, porque muchas de las personas atendidas se enfrentan a barreras administrativas, relacionales, habitacionales y de salud que desbordan cualquier respuesta centrada solo en la empleabilidad.

El empleo ya no basta para garantizar inclusión social

Cáritas Euskadi advierte que unas políticas públicas basadas principalmente en el empleo dejan fuera a personas que nunca podrán insertarse plenamente en el mercado laboral o que, aun trabajando, permanecen en situaciones de gran fragilidad, por lo que reclama una mirada basada en derechos y necesidades reales, no condicionada únicamente por la capacidad productiva.

La vivienda se consolida como el principal factor de exclusión

La vivienda vuelve a situarse como el elemento principal que genera exclusión. El acceso a un alojamiento digno continúa siendo uno de los grandes cuellos de botella para muchas personas y familias, especialmente cuando existen dificultades de acceso a padrón, contratos de arrendamiento irregulares, alquileres de habitación, subarriendos o situaciones de sinhogarismo que impiden acceder con normalidad a una integración social.

A ello se suma la especial preocupación por familias sin hogar con menores o en alojamientos precarios, una realidad que exige más coordinación institucional y más recursos habitacionales adecuados.

La precariedad y la incertidumbre están impactando en la salud mental

Otro de los retos más visibles durante este año ha sido el deterioro de la salud mental vinculado a la precariedad. Muchos malestares psicológicos nacen del peso de la inseguridad, la soledad, la burocracia, la incertidumbre económica y la imposibilidad de sostener proyectos de vida estables.

Cáritas Euskadi alerta del riesgo de que ante estos problemas sociales la solución sea la medicalización, dado que cada vez es mayor la brecha entre quienes pueden seguir tratamientos o acceder a apoyos especializados y quienes no disponen de recursos para hacerlo.

Familias, juventud y personas migrantes: las realidades más expuestas

La atención desarrollada en 2025 también ha puesto rostro a realidades que con frecuencia permanecen invisibilizadas. Familias con menores a cargo, personas migrantes y jóvenes aparecen como algunos de los perfiles que requieren respuestas más ajustadas, sostenidas y cercanas, ya que en ellos confluyen con especial intensidad la precariedad económica, la fragilidad residencial, la soledad y la incertidumbre de futuro.



Cuidar vínculos y construir comunidad: una prioridad social

En este marco, Caritas Euskadi insiste en que la respuesta social no puede reducirse al refuerzo de prestaciones, sino que debe avanzar hacia un cambio de paradigma basado en el cuidado, la interdependencia y la construcción de comunidad. Generar comunidad inclusiva es una manera de fortalecer la cohesión social y de evitar que miles de personas sigan atrapadas en la invisibilidad por culpa de requisitos o sistemas rígidos.

Personas voluntarias

En Caritas Euskadi el voluntariado es el motor de nuestra acción comunitaria. Gracias a la implicación de cientos de personas voluntarias, generamos redes de cercanía, escucha y acompañamiento que fortalecen la cohesión social y sitúan la dignidad de cada persona en el centro, construyendo una sociedad más justa, humana e inclusiva.

Por territorios, en **Gipuzkoa** colaboran **861** personas, con una composición del **35% de hombres** y **65% de mujeres**. En **Bizkaia**, la red está formada por **1.805** personas, de las que el **23%** son hombres y el **77%** mujeres. En **Araba**, participan **635** personas, con un **13% de hombres** y un **87% de mujeres**.

Más información:

Mercedes Escribano Abad

945 23 28 50 – 688 71 37 87 comunicacion@caritasvitoria.org

caritasvitoria.org



PRENTSA OHARRA

CARITAS EUSKADIK 34.500 ONURADUN BAINO GEHIAGO ARTATU DITU 2025EAN, ETA OHARTARAZI DU BAZTERKETA-FAKTORE NAGUSI GISA SENDOTU DELA ETXEBIZITZA

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 3a

2025ean, pobreziak eta gizarte-bazterkeriak ukitutako 34.569 pertsonak osaturiko 17.077 etxeren bidelagun izan da Caritas Euskadi Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Gainera, 4.561.979,38 euroko zuzeneko laguntza ekonomikoak bideratu ditu oinarritzko premietarako, etxebizitzarako, hornigaietarako eta beste funtsezko laguntza batzuetarako, eta egunez egun lurralde osoan harrera- eta akonpainamendu-sare zabal bat sostengatzen duten 3.301 boluntarioren konpromisoa izan du.

2025ean lagun egin zaien pertsonak eta etxeak

Caritas **Bizkaiaren** ekintzari esker, **9.104 etxeren (14.616 pertsona)** alboan izan ginen. **Gipuzkoan, 4.065 etxetan (10.183 pertsona)** esku hartu genuen. **Arabian, 3.908 etxeri** eman zitzaizen akonpainamendua; hain zuzen, **9.770 pertsonari**. Oro har, **17.077 etxetan** izan zen **Caritas Euskadiren** sarea, pobrezia-egoeran eta gizarte-bazterkerian dauden **34.569 pertsonaren** alboan.

Zuzeneko laguntza ekonomikoak (2025)

Gipuzkoan, zuzeneko laguntza ekonomikoak **2.278.134,00 €**-koak izan dira. Bizkaian, ostera, zuzeneko laguntza ekonomikoak **1.719.374,55 €**-koak izan dira. Eta, Araban, **564.470,83 €**-koak.

Guztira, Caritas Euskadik **4.561.979,38 €** bideratu ditu zuzeneko laguntza ekonomikoetara.

Gizarte-bazterketa gero eta konplexuagoa eta luzeagoa

Caritas Euskadi datu argi batekin iritsi da 2026ko Corpus egunera: gizarte-bazterkeria gero eta konplexuagoa, biziagoa eta luzeagoa da, estatuko batezbestekotik gorako adierazleak dituen lurralde honetan ere bai. Urtean zehar artatu dugun errealitateak berresten duenez, ez da nahikoa susperraldiaz edo hobekuntza makroekonomikoaz aritzea, gizarteratze prekarioko egoerak gero eta ugariagoak badira eta milaka pertsonak zailtasunak badituzte oraindik oinarritzko eskubideak erabiltzeko, hala nola etxebizitza, osasuna eta behar adinako gizarte-babesa.



2025ean, askotariko egoera zaugarriak bizi dituzten pertsona eta familien ondoan jarraitu du Caritas Euskadik; etxebizitzaren ezegonkortasuna, hauskortasun emozionala, diru-sarreraren eskasia eta eguneroko bizimodu duin bati eusteko zailtasuna dira horietako egoera batzuk. Caritasek azpimarratzen duenez, testuinguru horretan bazterketa ez du enplegu faltak bakarrik eragiten. Izan ere, artatutako pertsonetako askok enplegarritasunean zentratzen diren erantzunak baino gehiago behar duten oztupoak dituzte administrazioaren, harremanen, bizitokiaren eta osasunaren esparruetan.

Enplegua dagoeneko ez da nahikoa gizarte-inklusiya bermatzeko

Caritas Euskadik ohartarazi duenez, oro har enpleguan zentratutako politika publikoek ez dituzte kontuan hartzen lan-merkatuan bete-betean inoiz integratuko ez diren pertsonak eta, lan egin arren, egoera oso ahulean daudenak. Horrenbestez, eskubide eta premia errealetan oinarritutako ikuspegi bat eskatzen du, ekoizpen-ahalmena baino gehiago aintzat hartzen duena.

Baztertzeko-faktore gisa sendotu da etxebizitza

Pertsonak baztertzen dituen elementu nagusia da berriro ere etxebizitza. Bizi izateko toki duin baterako sarbidea da oraindik ere botila-lepo handienetariko bat pertsona eta familia askorentzat; bereziki, erroldan sartzeko zailtasunak, alokairu-kontratu irregularrak, logelen alokairuak, azpierrentamenduak eta gizarteratzea oztopatzen duten etxebizitza faltaren testuinguruak daudenean.

Horrez gainera, kezka berezia eragiten dute adingabeak dituzten etxebizitzarik gabeko familiek eta bizitoki eskasetan daudenek. Errealitate horrek erakundeen koordinazio handiagoa eta bizitoki-baliabide egoki gehiago eskatzen ditu.

Eskasiak eta ziurgabetasunak osasun mentalari eragiten diote

Eskasiak osasun mentalean dituen ondorio negatiboak izan dira aurtengo erronka nabarmenetariko bat. Ziurgabetasunaren, bakardadearen, burokraziaren, ezegonkortasun ekonomikoaren eta bizi-proiektu egonkorrik eduki ezin izatearen ondoriozkoak dira ondoez psikologiko ugari.

Arazo sozial horiek medikazioarekin konpondu nahi izatearen arriskuaz ohartarazi du Caritas Euskadik. Izan ere, gero eta arrakala handiagoa dago tratamenduak jaso eta laguntza espezializatuak eskuratu ditzaketen pertsonen eta horretarako baliabiderik ez dutenen artean.



Familiak, gazteak eta migratzaileak: errealitate arriskutsuenak

Sarritan ikusten ez diren errealitateei aurpegia jarri die 2025ean emandako arretak. Adingabekoen ardura duten familiak, migratzaileak eta gazteak dira erantzun doitu, jarraitu eta gertukoak behar dituzten kolektiboetarikoz batzuk, prekaritate ekonomikoa, bizitoki-ahultasuna, bakardadea eta etorkizunarekiko ziurgabetasuna modu bereziki bizian jasaten baitituzte.

Loturak zaintzea eta komunitatea eraikitzea: lehentasun soziala

Esparru horretan, Caritas Euskadik azpimarratu du laguntza soziala ezin dela mugatu prestazioak indartzera. Izan ere, paradigma aldatu behar da, zaintza, interdependentzia eta komunitatearen eraikuntza oinarri hartuta. Komunitatea inklusibo eginez, kohesio soziala indartuko da, eta eskakizun eta sistema zurrunezkoen erruz milaka pertsonak ikusezin izaten jarraitzea saihestuko da.

Boluntarioak

Boluntarioak dira Caritas Euskadiren komunitate-ekintzaren motorra. Ehunka eta ehunka boluntarioren parte-hartzeari esker, kohesio soziala indartu eta pertsona bakoitzaren duintasuna erdigunean jartzen duten gertutasuneko entzute- eta akonpainamendu-sareak sortzen ditugu, modu horretan gizarte justu, gizatiar eta inklusiboago bat eraikitzeko.

Lurreldean, **Gipuzkoan 861** boluntario hari dira lanean; haietatik **% 35 gizonezkoak** dira, eta **% 65 emakumezkoak**. **Bizkaian, aldiz, 1.805** boluntariok osatzen dute sarea; **% 23** gizonezkoak dira, eta **% 77** emakumezkoak. Eta **Araban 635** pertsona aritzen dira boluntario-lanetan, **% 13** gizonezkoak eta **% 87** emakumezkoak.

Informazio gehiago:

Mercedes Escribano Abad

945 23 28 50 – 688 71 37 87 comunicacion@caritasvitoria.org

caritasvitoria.org
